

Oroitu ezin denaren emaria

W. G. Sebalden 'Austerlitz' itzuli du Idoia Santamariak, eta Igelak argitaratu • Memoria, bidaia kronika, irudia eta beste uztartzen ditu • Joseba Sarrionandiak idatzi du gibelsolasa

Itziar Ugarte Irizar Donostia

«Normalean, beste hizkuntza batzuetara itzuli izan denean, festa bat izan da; badelako liburu bat nahiko klabea, oso zaila itzultzen, eta itzultzen den hizkuntzara beti ekartzten duelako estilo oso zehatz bat». Igelan editore lanetan hasi zenetik ekarri nahi zituen obretako bat zela ere onartu du Lander Majuelok, eta heldu da: W. G. Sebalden *Austerlitz* kalera-tu du argitaletxeak. Idoia Santamariaren itzulpenean. Ez da edonolako liburua; 2001ean kalera-tua, «egungo mendeak eman duen liburu originalarikoa bat» dela diote, eta hala defendatu dute editore zein itzultzaileak ere. Joseba Sarrionandiaren gibelsolasarekin jantzi dute argitalpena, eta hala idatzi du hark: «Sebalden narrazioen gaia, ezin gertaera baino gehiago, dena delako hori azaltzeko ezintasuna da. Memoria baino lehenago, ahazmena dago, eta ondoren ere bai».

Kontatu ezina nola kontatu. Horri helduko zion Sebalden bere literaturan. Bavariako Wertach herrixkan jaio zen, 1944an, eta aitarekin izan zuen biziko gatazka nagusia, «bere belaunaldiko askok bezala», Majueloren esanetan: «Alemanian, bere belaunaldia da zuzenean aitarekin hausten duena, aita gehienak egon direlako, gutxienez, armadan. Eztabai-

da oso era gatazkatsuan irekitzen da, galdera bakar batean oinarrituta: aitari galdetzea zer egin zuen gerran». Beste askorena bezala, hautsi egin zuen horrek Sebalden familia, eta Ingalaterrara egin zuen idazleak 21 urte betetzerako. Alemaniaren «ondare politikoa-ri» bai, baina ondare kulturalari ez zion inoiz uko egin; literatura alemana irakasten jardun zuen East Angliako unibertsitatean. Hor argitaratu zituen lehen lanak, eta 43 urte zituen lehen eleberririk idazten hasi zenean.

«Eleberririk dei badaitezke», editoreak. Izan ere, memoria, bidaia kronika, azterketa literarioa eta beste nahasi zituen horietan Sebalden «artefaktu narratibo» deitu ditu Sarrionandiak. *Austerlitz*-en kasuan, dena dator kasik paragrafo bakarrean josita eta 84 irudi ere kontakizunaren parte dira. Auschwitzen ondoren ezin zela poesia idatzi esan bazuen Adornok, hari erantzuteko Sebalden modua izan zen mota horretako literatura idaztea, editorearen ustez: «Nazismoa zuzenean bizi ez arren, hura herentzia gisa jaso zuen lehen generaziokoa

izan zen, eta mota honetako eleberririk erantzun zuen. Nahasketak horrekin sortzen duen tonua eta erritmoa esan ezin den hori esateko modu bat da».

Argumentua bera soiltzat har daitezke abiapuntuan. Ume zela identitate ostu zioten pertsona



Asko dago isildua, baina iradokia. Hori da, nire ustez, liburuaren alderdirik eder baina mingarrietako bat»

Idoia Santamaria
Itzultzailea

bat topatuko du narratzaileak, Jacques Austerlitz. Ez du jakingo ezer bere jatorriaz, eta narratzailearekin izango duen zeharkako elkarrizketa luzean joango da identitate hori berrezartzen.

Azpiko korrante geldoa

Itzulpen oro abentura bat bada, lan hau «espedizio bat» izan dela aitortu du Santamariak. Gaztelaniz zuen irakurria aurrez, eta go-goan zuen orduan eragin zion in-

presioa. «Askotan pentsatu nuen irakurri ahala: nola arraio itzuli du hau!». Proposatu ziotenean, bada, beldurra eta desira batera sentitu zituela aitortu du.

Sebalden lanen artetik, nobelaren ohiko moldera gehien hurbiltzen den lana da *Austerlitz*, eta,

hala ere, biografia, historia, liburuetako pasarteak... dena dator nahasian, Santamariak berretsi duenez. Oroimena edo, zehatzago, oroitu ezina jo du liburuaren ardatz gisa, eta formak ere horri erantzuten diola azaldu du: «Ez dago ordena kronologikorik,

jauzika doa oroitzapen batetik bestera, elkarrizketa markarik ere ez dago... Baina, gezurra badi-rudi ere, digresio guztiak bere lekuan daudela sinetsarazten du autoreak, eta horrek lur azpiko ur korrante geldo moduko bat sortzen du, zoko guztietara iristen dena».

Hori zaio azpimarragarri itzultzaileari, esaten denaren azpitik esaten dena: «Liburuan esplizitazten dena liburuaren zati bat da;

asko dago isildua, baina iradokia. Hori da, nire ustez, liburuaren alderdirik eder baina baita mingarrietako bat ere, ikustea nola idazkera bera bihurtzen duen istorioaren gidari nagusi».

1990eko hamarkadaren amaiera arte, literatur teoria idazten izan zuen ekoizpenik handiena Sebalek. Poema liburu bat ateratu zuen ondotik, eta fikziozko eleberrietan laugarrena izan zuen *Austerlitz*, istripuz hil baino gutxi lehenago argitaratu zuena. Bertan dator aurreneko esplizituki aipatua holokaustoa -II orrialdeko esaldi bat tarteko-, baina egon gabe ere bere obran beti dagoen auzia dela aipatu du Santamariak: «Aipatzen ez denean ere hor dago, hainbat eta hainbat adarretan, baina hori da beti». Idazkera horren «eraginkortasuna» aipatu du, hain justu.

Egindako lanagatik zoriondu du Majuelok Santamaria -«benetan erraz irakurtzen da, duen sakontasuna galdu gabe»-, eta bidelagun izan dituenak eskertu ditu hark -Juan Garzia eta Xabier Olarra, tartean-. Izandako zailtasunen artetik, esaldi luzeen karentzia eta haren «letania doinua» mantentzeko lana aipatu ditu, batik bat, baita Sebalden hainbat eta hainbat eremuri buruz erakusten duen jakintza xehe ekartzea ere. Tximeleta klase ugari estreinakoz jarri dituzte euskaraz, adibidez. «Ikusteko noraino hel zaitezkeen Sebald itzultzen».

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-20:00
www.santelmomuseoa.eus

Gaur, asteartea, museorako sarrera doakoa da



Erakusketa

ROSA VALVERDE. ARTE KAXAK

10:00 - 20:00

Azken egunak. Martxoaren 13ra arte.

STM

San Telmo Museoa



Idoia Santamaria itzultzailea, W. G. Sebalden *Austerlitz* (Igela) liburua eskuetan hartuta, atzo, Donostian. ANDONI CANELLADA / FOKU